ko obrak ezin jar daitezke Ogasun Ministerioak Europako Batzordearen aurrean 2000-2006 aldirako aurkeztu duen Toki Egitarau Operatiboaren babesean. Horretan, egitarauaren barruan, udalerri txiki eta ertainetako azpiegitura eta ekipamendu kolektiboak sartzen dira, eta 5. Ardatzaren barruan (“Toki eta Hiri Garapena”) , Herri Babeseko Zuzendaritza Nagusiak kudeatuko duen azpiegitarau bat jasotzen da. Azken honen helburua ondokoa da: Zuzendaritzaren eta FEDERen diruekin udalen titulartasuneko bideetan obrak finantzatzea, baldin eta horiek biztanleei abisatzeko bideak edo FEDERen 1 Helburuko Zonan dauden Estualdi Nuklearreko Egitasmoetan ebakuazio bideen alternatiboak edo bigarren mailakoak badira.

Lantarongo eta Valdegoviako Udalak FEDERen 1 Helburuko Zonatik kanpoan daudenez, ezin jar daitezke obra horiek burutzeko Europar Batasunari eskatutako finantzaketaren babesean. Hala ere, Herri Babeseko Zuzendaritza Nagusiak Garoñako Zentral Nuklearreko Estualdi Nuklearreko Kanpo Egitasmoa (PENBU) lehenbailehen zeharo operatiboa izatea lortu nahi du, eta prest dago aurretik aipatutako bide azpiegitura hobetzeko obrak ehuneko garrantzitsu batean finantzatzera.

Halaber, Arabako Foru Aldundia prest dago bide azpiegiturako obra horien finantzaketan Barne Ministerioarekin elkarlanean aritzera, baita obrak gauzatzeko ardura bere gain hartzeko ere.

Horiek horrela, Barne Ministerioak, Arabako Foru Aldundiak eta Valdegoviako Udalak erabaki dute lankidetza hitzarmen bat izenpetzea aurretik aipatutako bide azpiegituran Garoñako Zentral Nuklearreko Estualdi Nuklearreko Kanpo Egitasmoaren (PENBUren) eragin eremuaren barruan dauden obrak finantzatu eta gauzatzeko.

Diputatuen Kontseiluak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, aurreko paragrafoan aipatzen den lankidetza hitzarmena izenpetzea onartu du eta, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko Foru Arauaren 6.1.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da erabaki hori Arabako Biltzar Nagusiek berrestea.

Biltzar Nagusien Funtzionamendu Arautegiaren 127. artikuluan ezarritakoaren arabera,

ARTIKULU BAKARRA

Berresten da Barne Ministerioaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Valdegoviako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, Garoñako Zentraleko Estualdi Nuklearreko Egitasmoen operatibotasuna erraztearren Arabako Lurralde Historikoko zenbait errepide eta landabide hobetzeko lanak finantzatu eta burutzekoa, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak abenduaren 5eko 968/2000 Erabakian onartu zuen bezala.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduaren 27a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LOPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**8.103**

Arabako Biltzar Nagusiek 2000ko abenduraren 26an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi zuten:

ABENDUAREN 26KO 19/2000 FORUA ARAUA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ABENDUAREN 16KO 35/1998 FORU ARAUAREN 16. ARTIKULUA ALDATZEN DUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

I.- Biltzar Nagusiek 2000ko ekainaren 14ko bilkuran 19/2000 mozioa onetsi zuten, lan harremana desegin edo hausteagatiko kalteordainek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen duten trataera fiskalarekin loturikoa. Mozio horren edukina honako hau zen:

1.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azter dezala langile eta enplegatu publikoen lan harremana desegin edo haustea edo eteteagatik jasotako kalteordainek PFEZen izaten duten trataera fiskala.

2.- Aztertu behar direnak honakoak dira zehazki: zergatik salbuetsita geratu behar duen kopurua, zergak ordaindu behar dituzten soberakinak errenta erregular edo irregular bezala tratatu behar ote diren, eta neurri hauek atzeranzko indarrez ezarri behar diren ala ez.

Municipios no se pueden acoger al Programa Operativo Local que el Ministerio de Hacienda ha presentado ante la Comisión Europea para el periodo 2000-2006, en el que se incluye dentro del programa infraestructura y equipamientos colectivos en pequeños y medianos municipios, y dentro del Eje 5 “Desarrollo Local y Urbano” un subprograma que la Dirección General de Protección Civil va a gestionar para financiar con fondos propios y del FEDER obras en caminos de titularidad municipal que constituyan rutas de aviso a la población o rutas alternativas o secundarias de las de evacuación en los Planes de Emergencia Nuclear localizados en la Zona Objetivo I del FEDER.

A pesar de que los municipios de Lantarón y Valdegovía están localizados fuera de la zona del Objetivo 1 del FEDER y no pueden acogerse a la financiación solicitada a la Unión Europea para acometer estas obras, la Dirección General de Protección Civil desea conseguir cuanto antes la operatividad plena del Plan Exterior de Emergencia Nuclear de la Central Nuclear de Garoña (PENBU) , y está dispuesta a financiar en un porcentaje importante las obras de mejora de infraestructura viaria mencionadas anteriormente.

La Diputación Foral de Álava está asimismo dispuesta a colaborar con el Ministerio del Interior en la financiación de tales obras de infraestructura vial, así como a asumir la responsabilidad de ejecutarlas.

En virtud de lo cual el Ministerio del Interior, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Valdegovía acuerdan la suscripción del un Convenio de Colaboración para financiar y ejecutar las obras en infraestructura viaria anteriormente mencionada que se encuentran comprendidas en el ámbito de incidencia del Plan Exterior de Emergencia Nuclear de la Central Nuclear de Garoña (PENBU).

El Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día 4 de diciembre de 2000, ha aprobado la suscripción del Convenio de Colaboración a que se refiere el apartado anterior, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.1.2 de la Norma Foral de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava procede la ratificación de dicho Acuerdo por las Juntas Generales de Álava.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 127 del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales.

ARTÍCULO ÚNICO

Se ratifica el Convenio de Colaboración entre la Ministerio de Interior, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Valdegovia (Alava) para financiar y ejecutar obras de mejora en carreteras y caminos rurales del Territorio Histórico de Álava para facilitar la operatividad de los Planes de Emergencia Nuclear de la Central de Garoña, en los términos aprobados por el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Alava en sus Acuerdo número 968/2000/2000 de 5 de diciembre.

Vitoria-Gasteiz, 27 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LOPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**8.103**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión celebrada el día 26 de diciembre de 2000, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 19/2000, DE 26 DE DICIEMBRE, DE MODIFICACIÓN DEL ARTÍCULO 16 DE LA NORMA FORAL 35/1998, DE 16 DE DICIEMBRE, DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I.- Las Juntas Generales aprobaron en sesión del 14 de junio de 2000 la moción 19/2000, relacionada con el tratamiento fiscal en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de las indemnizaciones por resolución o rescisión de la relación laboral. Esta moción tenía el siguiente contenido:

1.- Las Juntas Generales instan a la Diputación Foral de Álava a estudiar el tratamiento fiscal en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que reciben las indemnizaciones por la resolución o rescisión de la relación laboral de los trabajadores/as y empleados/as públicos.

2.- Dicho estudio debe centrarse en la cuantía que ha de quedar exenta del Impuesto, el tratamiento como renta regular o irregular de los excesos que deben someterse a tributación, así como la aplicación retroactiva de estas medidas.

3.- Este estudio se concretará en un proyecto de Norma Foral que se presentará por la Diputación Foral de Álava a estas Juntas

3.- Azterketa horren ondorioz, foru arau proiektu bat osatu eta Biltzar Nagusiei 2000ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu behar die Arabako Foru Aldundiak.

II.- Foru Arau honen helburua ekainaren 14ko 19/2000 mozio hori betetzea da. Horretarako, erabakitzen da lanaren etekin osoa kalkulatzeko langileek jasotako kopuruei %70a aplikatuko zaiela, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira. Hala ere, jasotako kopuruek lanbidearteko gutxienezko soldata 2,5ez biderkatzearen emaitza gainditzen badute, edo 65 urte betetzen diren egunetik aurrera jasotzen badira, oso-osorik sartuko dira Zergaren oinarri ezargarrian.

Aurretik azaldutako erregimena aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da zenbait baldintza betetzea. Adibidez, zehazten da beren lan harremana deuseztaturik duten langileek jasotako kopuruek enplegu erregulazioko espediente batetik sortutakoak izan behar dutela, edo lan harremana Langileen Estatutuaren 52.c) artikuluan ezarritakoaren ondorioz deuseztatu behar izan dela.

Kasu hauetarako ezarritako araubidea aplikagarria izan dadin bete behar diren beste bi baldintzak honako hauek dira: alde batetik, langileek jasotako kopuruek Enplegu Erakunde Nazionaletik, Gizarte Segurantzaren Erakunde Nazionaletik edo honen ordezko erakundeetatik jasotako zenbatekoen osagarriak izan behar dutela eta, beste aldetik, aldizkako moduan jaso behar direla, aldi baterakoak nahiz biziartekoak direlarik, berdin da haien ordaintzailea nor den. Bi baldintza hauetariko lehenengoak baditu salbuespenak.

Azkenik, Foru Arauak Xedapen Iragankor bat dauka, preskribatu gabeko zergaldiei aplikagarria zaien erregimenari buruzkoa.

**Artikulu bakarra.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 16. artikulua aldatzea.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 16. artikulua aldatzen da, atal berri bat sortuz. Atal hau, 3.a, honela idatzita egongo da:

“3. Foru Arau honen 9. artikuluko d) letran ezarritakoaren ondorioz salbuetsita egon litezkeen kopuruen kalterik gabe, eta atal honetako hurrengo paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen baldin badira, lanaren etekin osoa ateratzeko, langileek jasotako kopuruei ehuneko 70a aplikatuko zaie. Aurretik ezarritakoak, urtean-urtean, lanbidearteko gutxienezko soldata 2,5ez biderkatuta ateratzen den emaitza izango du muga. Muga hau, aipaturiko %70eko portzentaia baino lehen aplikatzen da. Bera gainditzen duten kopuruak, edo langileak 65 urte betetzen duen egunetik aurrera jasotako kopuruak, oso-osorik sartuko dira Zergaren oinarri ezargarrian.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikagarria izango zaie beren lan harremana deuseztaturik duten langileek jasotako kopuruei, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badira:

a) Langileen Estatutuen 51. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetutako eta eskumena duen lan arloko agintaritzak aurretiaz onetsitako enplegu erregulazioko espediente batetik sortuak izatea, edo lan harremana Estatutu horren 52.c) artikuluan ezarritakoaren ondorioz desagertu izatea, edo funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituzten erabaki edo langileen hitzarmenen bidez jasota dauden borondatezko erretiroetatik, edo Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Legeak arautzen dituen borondatezko erretiroetatik sortuak izatea.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, enplegu erregulazioko espedienteen parekotzat hartuko dira administrazio publikoek helburu berberak lortzera zuzendutako giza baliabideen egitasmo estrategikoak.

b) Enplegu Erakunde Nazionaletik, Gizarte Segurantzaren Erakunde Nazionaletik edo honen ordezko erakundeetatik jasotako zenbatekoen osagarriak izatea. Trataera berdina emango zaie egoera bereziengatik zergadunak ekitaldian zehar erakunde horietatik inolako prestaziorik eskuratu ez duen kasuetan jasotako kopuruei.

c) Aldizkako moduan jasotzea, aldi baterakoak nahiz biziartekoak direlarik. berdin da haien ordaintzailea nor den.”

Kopuruak kapital eran jasoz gero, bakarrik aplikatuko da 3. atal honetan finkatutako zerga-tratamendua, lan-errenta irregularrentzako Foru Arau honetan aurreikusita dagoen erregimen orokorra baino onuragarriagoa baldin bada zergadunarentzat.

Generales antes del 30 de septiembre de 2000.

II.- El objeto de la presente Norma Foral es dar cumplimiento a la referida moción 19/2000, de 14 de junio. A tal efecto se establece que, siempre que se reúnan determinados requisitos, el rendimiento íntegro del trabajo se obtendrá aplicando el 70% sobre las cantidades percibidas por los trabajadores. Ahora bien, las cantidades recibidas que superen la cifra que resulte de multiplicar por 2,5 el salario mínimo interprofesional o que se perciban a partir de la fecha en que se cumpla la edad de 65 años, se integrarán en su totalidad en la base imponible del Impuesto.

La aplicación del régimen anterior expuesto requiere la concurrencia de determinados requisitos. Así, se precisa que las cantidades percibidas por los trabajadores cuya relación laboral se haya extinguido tengan su origen en un expediente de regulación de empleo o que la relación laboral se haya extinguido en virtud de lo establecido en el artículo 52.c) del Estatuto de los Trabajadores.

Los otros dos requisitos que han de reunirse para que sea aplicable el régimen establecido para estos casos, se refieren, por una parte, a que las cantidades percibidas por los trabajadores sean complementarias de los importes recibidos del Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de la Seguridad Social o Entidades que le sustituyan y, por otra parte, a que se perciban de forma periódica, bien tengan carácter temporal o vitalicio, independientemente de quién sea el pagador de las mismas. El primero de estos dos requisitos tiene excepciones.

Finalmente, la Norma Foral recoge una Disposición Transitoria relativa al régimen aplicable a los períodos impositivos no prescritos.

**Artículo único.- Modificación del artículo 16 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

Se modifica el artículo 16 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, creando un nuevo apartado, el 3, que tendrá la siguiente redacción:

“3,- Sin perjuicio de las cantidades que pudieran resultar exentas en virtud de lo dispuesto en la letra d) del artículo 9 de esta Norma Foral, y siempre que se cumplan los requisitos a que se refiere el párrafo siguiente de este apartado, el rendimiento íntegro del trabajo se obtendrá aplicando el 70 por 100 sobre las cantidades percibidas por los trabajadores. Lo dispuesto anteriormente tendrá como límite anual la cantidad que resulte de multiplicar el salario mínimo interprofesional por 2,5. Las cantidades que excedan de este límite, que opera antes de aplicar el citado porcentaje del 70%, o que se perciban por los trabajadores a partir de la fecha en que cumpla la edad de 65 años, se integrarán en su totalidad en la base imponible del Impuesto.

Lo dispuesto en el párrafo anterior será de aplicación a aquellas cantidades percibidas por los trabajadores cuya relación laboral se hubiera extinguido, siempre que concurran las siguientes circunstancias:

a) Que tengan su origen en un expediente de regulación de empleo tramitado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 51 del Estatuto de los Trabajadores y previa aprobación por la autoridad laboral competente, o se haya extinguido la relación laboral en virtud de lo establecido en el artículo 52.c) de dicho Estatuto, o en jubilaciones voluntarias recogidas por acuerdos reguladores de condiciones laborales del funcionariado, convenios de personal laboral o por jubilaciones voluntarias reguladas por la Ley de Ordenación General del Sistema Educativo.

A efectos de lo dispuesto en esta letra se asimilarán a los expedientes de regulación de empleo los planes estratégicos de recursos humanos de las Administraciones Públicas que persigan los mismos fines.

b) Que sean complementarias de los importes percibidos del Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de la Seguridad Social o Entidades que la sustituyan. El mismo tratamiento se aplicará a las cantidades percibidas en aquellos casos en que, por circunstancias particulares, el contribuyente no hubiere obtenido durante el ejercicio prestación alguna de los citados Organismos.

c) Que se perciban de forma periódica, bien tengan carácter temporal o vitalicio, con independencia de quien sea el pagador de las mismas”.

En el caso de percibir las cantidades de forma capitalizada, solamente se aplicará el tratamiento tributario establecido en este apartado 3, cuando le resulte más favorable al contribuyente que el régimen general previsto en esta Norma Foral para las rentas irregulares del trabajo.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

1. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitakoak baino lehenagoko zergaldi preskribatugabeetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 16. artikuluaren 3. atalean aipatzen diren kopuruak, langileek 65 urteko adina betetzen duten egunera arte jasotakoak badira, errenta irregulartzat hartuko dira, zergaldi bakoitzean indarrean dagoen arautegiaren arabera.

Errenta irregularra zenbat urtetan sortutakotzat hartu behar den zehazteko, langileak enpresan lanean jardun duen urte kopurua ondoren azaltzen den kopuruaz zatituko da: lan harremana deuseztatu den egunetik eta zergadunak 65 urte betetzen duen egunera arte igarotako urte kopurua, edo adin horretara baino lehenago, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 16.3. artikuluan aipatzen diren kopuruak jasotzen bukatzen badu.

Indarrean dagoen arautegian errekurtsoak egiteko jasotzen diren epe orokorretatik aparte, Arabako Foru Aldundiak xedapen iragankor honetan aipatzen diren zergaldi preskribatugabeak berraztertuko ditu, interesatuak nahiz gizarte- edo lan- onurak edo sektoreak ordezkatzen dituzten entitate, elkarte eta erakundeek hala eskatuta. Helburu horrekin, horretarako eskabidea sei hilabeteko epean egin beharko da Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita.

2. Aurreko ataleko azken paragrafoan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 1999ko ekitaldiari ere aplikagarria izango zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio Foru Arau honen garapen eta aplikaziorako beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduraren 28a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**8.104**

Arabako Biltzar Nagusiek 2000ko abenduaren 26an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi zuten:

ABENDUAREN 26KO 20/2000 FORU ARAUA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 1999KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAK ONESTEN DITUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Diputatuen Kontseiluak Arabako Lurralde Historikoaren 1999ko ekitaldiko Likidazio Kontu Orokorra onartu duelarik, Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren espedientea gertatu da. Honen onarpena Arabako Biltzar Nagusiei dagokie, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauaren 116. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ARTIKULU BAKARRA.- Onartzen dira Arabako Lurralde Historikoaren 1999ko ekonomia ekitaldirako Kontu Orokorrak.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko abenduaren 28a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**8.105**

**Iragarkia**

Jon Iñaki Usategi Díaz de Otalora, Euskal Herritarrok Biltzarkide Taldea-koak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko Mozioa aurkeztu du, behi eroen gaitzari aurre egiteko neurriak proposatuz.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko abenduaren 27a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

1. En los períodos impositivos no prescritos, anteriores a los iniciados a partir del 1 de enero de 1999, las cantidades a las que se refiere el apartado 3 del artículo 16 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, percibidas por los trabajadores hasta la fecha en que éstos cumplan la edad de 65 años, tendrán la naturaleza de renta irregular, conforme a la normativa vigente en cada uno de los períodos impositivos.

A los efectos de determinar el número de años en que ha de entenderse generada la renta irregular, se dividirán los años de prestación de servicios en la empresa por parte del trabajador entre el número de años que median desde la fecha de extinción de la relación laboral y aquélla en que el contribuyente cumpla la edad de 65 años o, antes de esta edad, en el supuesto de que termine de recibir las cantidades a que se refiere el artículo 16.3 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Con independencia de los plazos generales de recursos contemplados en la normativa vigente, la Diputación Foral de Álava revisará, a petición tanto del interesado, como de entidades, asociaciones e instituciones representativas de sectores o intereses sociales o laborales, los períodos impositivos no prescritos a los que se refiere esta Disposición Transitoria. A tal efecto, se deberá formular la correspondiente solicitud en el plazo de seis meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Norma Foral en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

2. Lo dispuesto en el último párrafo del apartado anterior también será de aplicación al ejercicio 1999 del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- La presente Norma Foral entrará en vigor el día de su publicación en EL BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos a partir del 1 de enero de 1999.

Segunda.- Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Vitoria-Gasteiz, 28 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**8.104**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 26 de diciembre de 2000, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 20/2000, DE 26 DE DICIEMBRE, DE APROBACIÓN DE LAS CUENTAS GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO 1999.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Una vez aprobada por el Consejo de Diputados la Cuenta General de liquidación del Territorio Histórico de Álava correspondiente al ejercicio de 1999, queda confeccionado el expediente de la Cuenta del Territorio Histórico de Álava, correspondiendo su aprobación a las Juntas Generales de Álava, de conformidad con lo previsto en el artículo 116 de la Norma Foral 53/92, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava.

ARTÍCULO ÚNICO.- Se aprueban las Cuentas Generales del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio económico de 1999.

Vitoria-Gasteiz, 28 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**8.105**

**Anuncio**

Jon Iñaki Usategi Díaz de Otalora, Portavoz del Grupo Juntero Euskal Herritarrok, presenta Moción para debate en Pleno, por la que se proponen medidas destinadas a combatir la enfermedad de las vacas locas.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de diciembre de 2000.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.